1995eko azaroaren 14a baino lehen aurkeztu beharko ditu interesdunak Produkziorako Onespen Agiriak eta aurreko homologazioan ezartzen ziren zernolako teknikoak ez dira aldatuko.

Erabaki honen aurka ohiko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industri Administrazio eta Plangintza sailburuordeari , azaroaren 26ko 30/1992 Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko Legearen 114 atalean ezartzen denaren arabera. Errekurtsoa, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epearen barruan egiun beharko da.

Erabaki hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Guztiek jakin dezaten ematen da argitara hau.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko azaroak 14.

Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendaria,
MAÍA LUISA FUENTES ALFONSO.

do la misma contraseña de homologación DBI-0045 P, disponiendo, asimismo, como fecha límite para que el interesado presente, en su caso, los Certificados de Conformidad de Producción antes del 14 de noviembre de 1995, definiendo como características técnicas las indicadas en la primitiva homologación.

Contra la presente Resolución se podrá interponer Recurso Ordinario, ante el Ilmo. Sr. Viceconsejero de Administración y Planificación, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación, de acuerdo con lo establecido en el artículo 114 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La presente Resolución entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Lo que se hace público para general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de noviembre de 1994.

La Directora de Administración de Industria,
Energía y Minas,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.

1917

ERABAKIA, 1995eko apirilaren 6koa, Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendariarena, norbere erabilpenerako karburanteak eta harroliozko errekaiak biltegiratzeko instalazioetarako baimenak emateko jarraibideak finkatzen dituena.

Esp. zk.: Seg/157f-94.

Urriaren 29ko 597/1991 Dekretuaz ezarri ziren Euskal Autonomi Elkartean era horretako instalazioak arautzeko egun indarrean dauden manuak; zehatz aipatuta, inori saltzeko eta hornitzeko instalazioetan, norberaren erabilpenerakoetan, industri eta zerbitzuen prozesu edo iharduketetan, halaber etxebizitzako eta beroketarako instalazioetan, errekaien eta karburante likidoen almazenaketa arautzeko dena eta instalazio horien baldintza teknikoak ezartzeko ere badena (1991ko azaroaren 14ko EHAA).

Orokorrean instalazio horiei aplika dakizkieeken arauak honako hauetan zehaztutakoak dira:

– 1968ko ekainaren 21eko Agindua, beroketarako eta industriakoak ez diren beste erabilera batzuetarako harroliozko produktuak erabiltzeko Arautegia onartzen duena (1968ko uztailaren 3ko EBO).

– 1988ko uztailaren 18ko Agindua, C gasoleoa errekaia erabil dezaten banakoen instalakuntzetarako agiriei eta beroiek ihardunean jartzeari buruzko Teknika-Araudia eta Jarraibideak onartzen dituena (1988ko irailaren 16ko EHAA).

1917

RESOLUCIÓN de 6 de abril de 1995, de la Directora de Administración de Industria, Energía y Minas, por la que se dictan Instrucciones para la autorización de Instalaciones de almacenamiento de Carburantes y Combustibles petrolíferos para Uso Propio.

N.º Exp.:Seg/157f-94.

La actual regulación de este tipo de instalaciones, dentro del ámbito territorial de esta Comunidad Autónoma, viene establecida por el Decreto 597/1991, de 29 de Octubre, por el que se regula el almacenamiento de combustibles y carburantes líquidos en las instalaciones de venta y suministro a terceros, las de uso propio, en procesos o actividades industriales y de servicios, así como en instalaciones domesticas y de calefacción y se establecen las condiciones técnicas de las mismas.(BOPV 14-11-91).

La normativa aplicable, con carácter general, a estas instalaciones viene determinada por:

– Orden de 21 de junio de 1968, por la que se aprueba el Reglamento para utilizar productos petrolíferos para calefacción y otros usos no industriales.(BOE 3-07-68).

– Orden de 18 de julio de 1988, por la que se aprueba la Norma Técnica e Instrucciones, sobre documentación y puesta en servicio de instalaciones individuales que utilicen como combustible gasóleo C. (BOPV 16-09-88)

– 1992ko abuztuaren 11ko Agindua, automoziorako errekaiak eta karburante likidoak hornitzeko eta saltzeko instalazioei buruzko DIE-IT-ACL-01 delako instrukzio teknikoa onartzeko dena (1992ko urriaren 7ko EHAA).

– Industri eta Energi sailburuaren 1994ko urtarrilaren 24ko Agindua, 1992ko abuztuaren 11ko Agindua aldatzen duena (1994ko otsailaren 23ko EHAA).

– 1982ko martxoaren 9ko Agindua. NTC.MIE-APQ-001, Sukoi eta errekai diren likidoen biltegiratzea (1982ko maiatzaren 20ko EBO).

– 1991ko uztailaren 18ko Agindua, Produktu Kimikoak Biltegiratzeko Arautegiko ITC MIE-APQ 001 delakoa aldatzen duena, hain zuzen sukoi eta errekai likidoak biltegiratzeari buruzkoa.

– Aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Aipatutako arauok aztertuta, baita gai hori arautzen duten Estatuko beste arauak aztertuta ere, ezin da ondoriorik atera ez eta irizpide argi eta zehatzik finkatu ere, betiko edo edonorako, «norbere erabilpenerako» esaldia aplika daiteken eremu materialean zer sartzen den ulertu ahal izateko.

Kontzeptu hori ulertzeko, hauxe litzateke jurisprudentziara hurbilduez gero aterako genukeen ondorioa: «norbere erabilpenerako» kontzeptuaren barruan ezin direla onartu hartzaile multzo zehaztu gabe eta orokor bat bere baitan bilduko lukeen aplikazio eremu bat inplikatuko luketen adiera edo erabilera guztiak; ez eta hartzaile kasu zehatz batzuk ere, zehaztasun hori baldintza orokorren menpean jartzen bada. Hain zuzen, berariazko erabilpen modu baterako oharteman eta taxututako instalazioak arautzeko diren arauen izaeratik edo xedetik kanpo geratuko liratekeelako.

Irizpideak finkatu behar direnan, ordea, bada kontuan hartu beharreko funtsezko beste ikuspegi bat ere: legez kanpoko lehiakortasuna sor daitekeela, aipatutako arauok aplikatzerakoan logika juridikoaren aurkako interpretazioetan oinarrituta, eta, egia esan, praktikan bene-benetako arazoak sortu izan dizkigu horrek.

Norbere erabilpenerako bidea hartu eta, benetan beste batzuei saltzeko asmoa izateaz gain, saltzea ere lortzen denean, orduan sortzen da gatazka hori, nahiz eta onurak «orokorrean beste batzuen» alderako izan. Kasu hori bene-benetan ere legearen aurkako iruzurra da, zeren, arau baten testu idatziaren babespean eskatutako baimenekin beste arau bat aplikatzea eragotzi nahi izan arren, antolamendu juridikoaren aurkako emaitzak lortzen badira, legearen aurkako iruzur lez egindakotzat hartu behar baitira horiek Kode zibilaren arabera; hala ere, hori ez da oztopo izango jokabide horrekin saihestu nahi izan den araua behar bezala aplikatu ahal izateko. Beraz, norbere erabilpenerako baimena duen edozein instalaziotan beste hirugarren batzuei hornidurak eskaintzeko iharduerak betetzen direla egiaztatzen bada, era horretako ihardueretarako lege orokorren menpe jarri beharko da delako instalazio hori.

– Orden de 11 de Agosto de 1992, por la que se aprueba la Instrucción Técnica DIE-IT-ACL-O1 sobre Instalaciones de suministro y venta al público de combustibles y carburantes líquidos de Automoción. (BOPV. 07-10-92).

– Orden de 24 de enero de 1994, del Consejero de Industria y Energía, por la que se modifica la Orden de 11 de agosto de 1992.(BOPV 23-02-94).

– Orden de 9 de marzo de 1982. NTC.MIE-APQ-001, Almacenamiento de líquidos inflamables y combustibles.(BOE 20-05-82).

– Orden de 18 de julio de 1991, por la que se modifica la ITC MIE-APQ 001, referente a almacenamiento de líquidos inflamables y combustibles del Reglamento de Almacenamiento de Productos Químicos (BOE 30-07-91)

– Las demás disposiciones que resulten de aplicación.

Del análisis de la normativa citada así como, de aquellas otras normas de ámbito estatal reguladoras de esta materia, no se pueden deducir y establecer criterios claros y precisos que sirvan, en todo tiempo y lugar, para precisar qué es lo que se debe entender incluido dentro del ámbito material de aplicación de la expresión «uso propio».

Un primer acercamiento de carácter jurisprudencial al referido concepto, nos llevaría a concluir que no se puede admitir dentro del concepto de «uso propio» todas aquellas acepciones o utilizaciones que impliquen un campo de aplicación en el que se puedan incluir a una generalidad indeterminada de sujetos destinatarios, o incluso supuestos de destinatarios determinados, cuando esta determinación conlleve condiciones de generalidad. Excediendo, por tanto, de la razón de ser u objeto de las normas reguladoras de aquellas instalaciones previstas y diseñadas para un uso especifico.

Otro aspecto fundamental que debe ser tenido en cuenta a la hora de adoptar un criterio definidor, es el de los problemas de competencia desleal que una aplicación de las normas citadas, basada en interpretaciones contrarias a la lógica jurídica, puede generar y que la práctica nos ha planteado como problemas reales y efectivos.

El conflicto se genera cuando se utiliza la vía del uso propio pretendiendo y lográndose una auténtica venta a terceros, aunque los beneficios reviertan en esa «generalidad de terceros». Este supuesto constituye un autentico fraude de ley, ya que según el Código Civil, las autorizaciones solicitadas al amparo del texto de una norma, que pretendan impedir la aplicación de otra, lográndose un resultado contrario al ordenamiento jurídico, se deben considerar ejecutadas en fraude de ley y no impedirán la debida aplicación de la norma que se hubiese tratado eludir. En consecuencia, cualquier instalación autorizada como de uso propio y que efectivamente se compruebe que está desarrollando una actividad propia de suministro a terceros, deberá someterse a la regulación general de éstas.

Erabaki honetan jasotako xedapenen balioa, beti, indarrean dauden legeak eta arauak interpretatu eta betearaztekoa da, eta Herri-Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21. atalean ezarritakoaren babespean ematen dira. Ihardunbide horren arabera, bada, administrazioko organoek bideratuko dituzte jerarkian beren menpeko diren organoen iharduerak, beharrezkoak diren jarraibideak eta zerbitzu aginduak emanez; hartara, bakoitzari dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira jarraibide horiek, hartzaileengatik eta sor ditzaketen ondorioengatik hori egitea komenigarri dela irizten zaionean.

Aipatutako lege manuak eta orokorrean eta bat etorriz aplika daitezkeen beste xedapenak ikusita, hauxe

ERABAKI DUT:

1. atala.– Xedea.

Erabaki honen bidez onartzen diren jarraibideen helburuak bi dira. «Norbere erabilpenerako» kontzeptua mugatzen duten irizpideak eta kasuak zehaztea, batetik, eta «Norbere erabilpenerako instalazio» lez hartuko diren instalazioak zeintzuk diren zehaztea, bestetik, beti ere, gasolinak eta gasoleoak biltegiratzeko diren kasuetarako.

2. atala.– Aplikazio eremua.

Euskal Autonomi Elkarteko lurraldean kokatuta egon eta erabaki honetan berariaz ohartemandako kasuren batean aurkitzen diren instalazio guztiei aplikatuko zaizkie erabaki honetako xedapenak. Berdintsutzat har daitezkeen beste instalazio guztiei ere aplikatuko zaizkie, nahiz eta berariaz ohartemanda egon ez, berariaz ohartemandakoekin konparatuz arrazoi berdinak daudela ikusten bada.

3. atala.– Sailkapena eta lege araubidea.

Erabaki honetan ohartemandako ondorioetarako, hauxe da instalazioekin egiten den sailkapena:

I. MULTZOA. Norbere erabilpenerako instalazioak.

Hauek dira adierazik estuenean norbere erabilpenerako instalazio lez hartuko direnak:

– Industriako instalazio finkoak (labeak, zenbait erabilpenerako erretokiak, etabar).

– Berogailu, klimatizazio eta ur bero osasungarrirako errekai instalazioak.

– Industrian produkziokoak ez diren beste barne erabilpen batzuetarako instalazio finkoak (talde elektrogenoak, etabar).

Instalazio horiei aplikatuko zaizkien xedapenak:

– Urriaren 29ko 597/1991 Dekretua, inori saltzeko eta hornitzeko instalazioetan, norberaren erabilpenerakoetan, industri eta zerbitzuen prozesu edo iharduketetan, halaber etxebizitzako eta beroketarako instalazioetan, errekaien eta karburante likidoen almazenaketa arautzeko dena eta instalazio horien baldintza teknikoak ezartzeko dena (1991ko azaroaren 14ko EHAA).

– 1968ko ekainaren 21eko Agindua, beroketarako eta industriakoak ez diren beste erabilera batzuetarako

Las disposiciones contenidas en esta resolución, tienen siempre, y en todo caso, el carácter de disposiciones interpretativas y de ejecución de la legislación y reglamentación en vigor y se dictan al amparo de lo establecido en el artículo 21 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Según dicho procedimiento los órganos administrativos dirigirán las actividades de los órganos jerárquicamente dependientes mediante instrucciones y ordenes de servicio, debiendo tales instrucciones ser publicadas en el correspondiente Boletín Oficial cuando se estime conveniente por razón de los destinatarios o de los efectos que puedan producirse.

Vistos los preceptos legales citados y otras disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Las Instrucciones que se aprueban mediante esta Resolución tienen por objeto establecer los criterios y supuestos delimitadores del concepto de «uso propio» y determinar las instalaciones que tendrán la consideración de «Instalaciones para uso propio», todo ello, para almacenamientos de gasolinas y gasóleos.

Artículo 2.– Ámbito de Aplicación.

Las disposiciones de la presente Resolución se aplicarán a todas aquellas instalaciones radicadas en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi que se encuentren en alguno de los supuestos previstos expresamente en esta Resolución, y a todos aquellos otros no contemplados de forma especifica pero que puedan ser considerados como semejantes, apreciándose identidad de razón con los expresamente previstos.

Artículo 3.– Clasificación y Régimen Jurídico.

A los efectos previstos en esta Resolución se establece la clasificación de instalaciones siguiente:

GRUPO I. Instalaciones para usos propios.

Tendrán la consideración de instalaciones para usos propios, en sentido estricto:

– Instalaciones industriales fijas (hornos, quemadores para aplicaciones diversas, etc.).

– Instalación de combustibles para calefacción, climatización y agua caliente sanitaria.

– Instalaciones fijas para otros usos internos no productivos en las industrias (grupos electrógenos, etc.).

Estas instalaciones se regirán por lo establecido en:

– Decreto 597/1991, de 29 de octubre, por el que se regula el almacenamiento de combustibles y carburantes líquidos en las instalaciones de venta y suministro a terceros, las de uso propio, en procesos o actividades industriales y de servicios, así como en instalaciones domésticas y de calefacción y se establecen las condiciones técnicas de las mismas.(BOPV 14-11-91).

– Orden de 21 de junio de 1968, por la que se aprueba el Reglamento para utilizar productos petrolí-

harroliozko produktuak erabiltzeko Arautegia onartzen duena (1968ko uztailaren 3ko EBO).

– 1988ko uztailaren 18ko Agindua, C gasoleoa errekaia erabil dezaten banakoen instalakuntzetarako agiriei eta beroiek ihardunean jartzeari buruzko Teknika-Araudia eta Jarraibideak onartzen dituena (1988ko irailaren 16ko EHAA).

– 1991ko uztailaren 18ko Agindua, Produktu Kimikoak Biltegiratzeko Arautegiko ITC MIE-APQ 001 delakoa aldatzen duena, hain zuzen sukoi eta errekai likidoak biltegiratzeari buruzkoa.

– Aplikagarri diren gainerako xedapenak.

II. MULTZOA. Norbere erabilpenerako instalazioen berdintsuak diren instalazioak.

Multzo horretan sartzen dira orokorrean, segurtasuna kontuan hartuta eta ibilgailuen neurri, maniobratzeko modu edo arriskuagatik zerbitzugune publikoetan hornitu ezin diren ibilgailuak dituzten enpresetan karburanteak eta harroliozko errekaiak biltegiratzeko dauden instalazio guztiak. Zehatz esanda, hauek dira norbere erabilpenerako instalazioen berdintsutzat hartuko direnak:

– Enpresen barruan bakarrik lan egiten duten barruko garraio ibilgailuei (orga jasotzaileak, barruko garraio ibilgailuak, etabar) errekaia eta/edo karburantea hornitzeko diren instalazioak.

– Instalazioaren titularraren jabetzakoak izan eta nekazaritzako ibilgailuei edo beste makina batzuei errekaiak eta/edo karburantea hornitzeko diren instalazioak.

– Instalazioaren titularraren jabetzakoak izan eta lan publikoetako ibilgailuei edo beste makina batzuei errekaiak eta/edo karburantea hornitzeko diren instalazioak.

– Ofizialak diren «ibilgailu zerbitzuetako» ibilgailuei errekaiak eta/edo karburantea hornitzeko diren instalazioak, biltegiratzeko instalazio horiek, izan ere, aipatutako zerbitzuetarako baino ez direnean (poliziak, suhiltzaileen zerbitzuak, etabar).

Instalazio horiei aplikatuko zaizkien xedapenak:

– Urriaren 29ko 597/1991 Dekretua, inori saltzeko eta hornitzeko instalazioetan, norberaren erabilpenerakoetan, industri eta zerbitzuen prozesu edo ihardueketetan, halaber etxebizitzako eta beroketarako instalazioetan, errekaien eta karburante likidoen almazenaketa arautzeko dena eta instalazio horien baldintza teknikoak ezartzeko dena (1991ko azaroaren 14ko EHAA).

– 1968ko ekainaren 21eko Agindua, beroketarako eta industriakoak ez diren beste erabilera batzuetarako harroliozko produktuak erabiltzeko Arautegia onartzen duena (1968ko uztailaren 3ko EBO).

– Aplikagarri diren gainerako xedapenak.

III. MULTZOA. Automoziora mugatutako erabilpena.

Enpresatik kanpo diharduten ibilgailuei errekaiak

feros para calefacción y otros usos no industriales.(BOE 3-07-68).

– Orden de 18 de julio de 1988, por la que se aprueba la Norma Técnica e Instrucciones, sobre documentación y puesta en servicio de instalaciones individuales que utilicen como combustible gasóleo C. (BOPV 16-09-88).

– Orden de 18 de julio de 1991, por la que se modifica la ITC MIE-APQ 001, referente a almacenamiento de líquidos inflamables y combustibles del Reglamento de Almacenamiento de Productos Químicos (BOE 30-07-91).

– Las demás disposiciones que resulten de aplicación.

GRUPO II. Instalaciones asimiladas a las de uso propio.

Entran dentro de este grupo, con carácter general, todas aquellas instalaciones de almacenamiento de carburantes y combustibles petrolíferos pertenecientes a empresas cuyos vehículos presentan características de tamaño, maniobrabilidad o peligrosidad que no permiten, atendiendo a criterios de seguridad, que se aprovisionen en las estaciones de servicio. En particular, se asimilarán a las Instalaciones de uso propio:

– Instalaciones destinadas a suministrar combustible y/o carburante a los medios de transporte interno, que operan sólo dentro de las empresas (carretillas elevadoras, vehículos de transporte interno, etc.).

– Instalaciones destinadas a suministrar combustible y/o carburante a los vehículos u otra maquinaria agrícola de propiedad del titular de la instalación.

– Instalaciones destinadas a suministrar combustible y/o carburante a los vehículos u otra maquinaria de obras públicas de propiedad del titular de la instalación.

– Instalaciones destinadas a suministrar combustible y/o carburante a los vehículos pertenecientes a «parques móviles» de carácter oficial, y cuyas instalaciones de almacenamiento sean para uso exclusivo del parque móvil (policías, servicio de extinción de incendios, etc.).

Estas instalaciones se regirán por lo establecido en:

– Decreto 597/1991, de 29 de octubre, por el que se regula el almacenamiento de combustibles y carburantes líquidos en las instalaciones de venta y suministro a terceros, las de uso propio, en procesos o actividades industriales y de servicios, así como en instalaciones domésticas y de calefacción y se establecen las condiciones técnicas de las mismas.(BOPV 14-11-91).

– Orden de 21 de junio de 1968, por la que se aprueba el Reglamento para utilizar productos petrolíferos para calefacción y otros usos no industriales.(BOE 3-07-68).

– Las demás disposiciones que resulten de aplicación.

GRUPO III. Uso Limitado para Automoción.

No tendrán la consideración de instalaciones asimi-

hornitzeko diren instalazioak ez dira norbere erabilpenerako instalazioen berdintsutzat hartuko; aldiz, «Automoziora mugatutako erabilpena» duten instalazio lez sailkatuko dira, eta honakoak sartzen dira sailkapen horretan:

– Enpresako kamioiak.

– Merkagaiak eta bidaiariak garraiatzen dituzten enpresak.

– Merkagaien eta bidaiarien garraialariek eta nekazariek osatutako elkarte, kooperatiba edo sozietateak, nahiz beren izaera zibila, nahiz merkataritzakoa izan.

Puntu honetan orokorrean edo zehazki aipatutako kasuren batean aurkitzen diren instalazioei baimena emateko («Automoziora mugatutako erabilpena») , honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatu beharko da:

a) Urriaren 29ko 597/1991 Dekretuaren arabera ezargarri diren eta bertan ohartemandako zehaztasun teknikoak eta segurtasunekoak betetzen direla. (Zerbitzugune publikoak).

b) Zerbitzugunera sartu eta bertatik irtetzeko, eskuduntzak dituen administrazioak emandako baimena duela, kokatuta dagoen lekuagatik baimen hori beharrezkoa denean. Baimen hori falta denean, onartu egingo da eskuduntzak dituen organoak egindako honako egiaztagiria ere: Industriako Administrazioari eskatutako baimenak babestuko lukeen instalazioaren kokapenari dagokionez, kasu horretan aplikagarri diren udal eta foru aldundiko legeak betetzen dituela zehazten duena.

c) Instalazioa erabiliko duten erabiltzaile guztien banan banako izenen zerrenda aurkeztu behar du, baita horien ibilgailuena ere; Garraio Txartela badutela egiaztatzeko agiriak ere batera arukeztu behar dira.

d) Herrialdeko edo herriko baimenak edo lizentziak ere aurkeztu egin behar dira.

IV. MULTZOA. Norbere erabilpenerako instalazio lez sailkatzen ez diren instalazioak.

Ez dira norbere erabilpenerako instalazio lez sailkatuko eta, ondorioz, ez zaie horretarako baimenik emango, aurreko kasuren batean berariaz edo zeharka bada ere aipatzen ez diren instalazio guztiak. Lehen aipatutako adiera batean ez dira onartuko, ez eta automoziora mugatutako erabilpenerako ere; eta berezi hauek utziko dira kanpoan:

Taxista, kontsumitzaile, autoen erabiltzaile, lanbide multzo bereko, auzokide eta abarren artean izaera zibilez edo merkataritzarako sortutako elkarte, kooperatiba edo sozietateetakoak izan eta errekaia bertatik hartuko duten ibilgailuen eta instalazioen titularrak pertsona berberak direnean, horretarako hartuko duten izaera juridikoa edozein izanda ere, nahiz pertsona fisiko nahiz juridiko izan, ibilgailuen jabeak izanda edo izan gabe.

Puntu honetan ohartemandako kasuren batean sailkatu behar diren eskabide guztiak, ordea, zerbitzugune publikorako diren gasolindegi lez izapidetu behar dira, zerbitzugune horientzat ohartemandako araubide juridikoaren menpe jarrita.

4. atala.– Xedapen orokorra.

lables a usos propios, quedando clasificadas como «Uso Limitado de Automoción», aquellas instalaciones de suministro de combustibles a vehículos que operen en el exterior de la empresa con destino a:

– Flota de camiones de la empresa.

– Empresa de transporte de mercancías y de viajeros.

– Asociaciones, Cooperativas o Sociedades, de carácter civil o mercantil de agricultores, transportistas de mercancías y viajeros.

Para la autorización de las instalaciones que se encuentren en alguno de los supuestos, que con carácter general o particular, se prevén en este punto («Uso limitado para Automoción»), se deberá acreditar el cumplimiento de las siguientes condiciones:

a) Cumplimiento de las especificaciones técnicas y de seguridad previstas y aplicables, según el Decreto 597/1991, de 29 de octubre.(Estaciones de Servicio).

b) Autorización por parte de la Administración competente en relación con el sistema de accesos y salidas, cuando por su localización geográfica tal autorización sea procedente. En defecto de la referida autorización será admisible la Certificación emitida por el órgano competente en la que se especifique que la ubicación y emplazamiento de la instalación, para la cual se solicita la Autorización de la Administración Industrial, cumple con la legislación local y foral aplicable.

c) Presentación de una relación nominal e individualizada de los futuros usuarios de la instalación así como de sus vehículos, junto con la documentación acreditativa de disponer de la Tarjeta de Transportes.

d) Presentación, en su caso, de las correspondientes autorizaciones o licencias de carácter local o municipal.

GRUPO IV. Instalaciones que no tendrán la consideración de uso propio.

No tendrán la consideración de instalaciones destinadas a usos propios, en ninguno de sus sentidos, ni de uso limitado para automoción, y en consecuencia no se autorizarán como tales, todas aquellas instalaciones que no aparezcan incluidas, expresa o tácitamente, en alguno de los supuestos previstos anteriormente y en particular las siguientes:

Todas aquellas instalaciones cuyos titulares, cualquiera que sea la forma jurídica que adopten, sean personas físicas o jurídicas, dueños o no, a titulo de propiedad, de los vehículos a los cuales está destinado el suministro de combustible y pertenezcan a Asociaciones, Cooperativas o Sociedades, de carácter civil o mercantil de taxistas, consumidores, usuarios de automóviles, sectores profesionales, vecinos, etc.

Cualquier solicitud que se presente, que deba ser clasificada en alguno de los supuestos que se prevén en este punto, se deberá tramitar como Estación de Servicio sometiéndose al régimen jurídico previsto para éstas.

Artículo 4.– Disposición de carácter general.

Orokorrean esanda, norbere erabilpenerako instalaziorik ez da onartuko, deposito finkoak dituztenak ez badira.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Norbere erabilpenerako hornikuntzarako instalazioen kasuan, bai baimenduta daudenei eta bai baimena lortzeko espedientea hasita dutenei honako xedapen hauek aplikatuko zaizkie:

1.– Baimendutako instalazioak.

Erabaki hau indarrean sartzen den egunean iadanik baimenduta dauden instalazioei aplikatuko zaizkien legeak, bada, baimena eman zitzaienean aplikagarri zituztenak dira. Hala ere, III. multzoan ohartemandako kasuren batean sartzen diren instalazioek, ordea, sei hilabeteko epean egiaztatu beharko diote eskuduntzak dituen lurralde ordezkaritzari jarraibide honetako III. multzoan ohartemandako baldintzak betetzen dituztela.

Izango da puntu honetan ohartemandako sei hilabeteko luzapenak ematerik ere, baina eskabidea arrazoietan oinarrituta izan behar da eta, nolanahi ere, instalazioak egokitzeko ihardunbideari ekin zaiola egiaztatu beharko da agirien bidez.

Salbuespenez bada ere, eta interesatuak hala eskatuta, eskuduntzak dituzten lurralde ordezkaritzek, arrazoiak azaltzen dituen erabakia medio, III. multzoko instalazioetarako beharretsi daitezkeen baldintza tekniko eta segurtasuneko baldintza bat edo bestetik salbuetsi ditzakete haietakoren bat, baldin eta, instalazioaren segurtasuna berma dezaten neurri, betekizun eta baldintza guztiak ondo egiaztatuta eta zehaztuta uzten dituen memoria teknikoa aurkezten bada eskabidearekin batera. Eskuduntzak dituen lurralde ordezkaritzak, berari aurkeztutako agiriak ikusita, baimena emateko beharrezko irizten dituen datu, informe eta ikuskaritza guztiak eskatu ahal izango ditu, eta instalazioak onartu beharko dituen aldian aldiko ikuskaritza araubidea ezarri ahal izango du.

2.– Baimenik gabeko instalazioak izan arren, erabaki hau indarrean jarri aurretik baimena lortzeko ihardunbidea hasita dutenak.

Idazati honetan ohartemandako instalazioen kasuan, bada, jakinarazpenaren berri ematen zaienetik sei hilabeteko epea izango dute erabaki honetan ezarritakoaren arabera berei aplikagarri zaizkien xedapenak betetzen dituztela egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen egunaren biharamunean hartuko du indarra erabaki honek; ondorio juridikoak, ordea, izenpetzen den egunean bertan hasita egongo dira indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko apirilak 6.

Industri, Energi eta Meategien Administraziorako zuzendaria,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.

Con carácter general, únicamente se admitirán como instalaciones de uso propio aquellas que cuenten con depósitos fijos.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Con respecto a los supuestos de instalaciones de suministro para uso propio ya autorizadas o en los que ya se haya iniciado el correspondiente expediente de autorización, se aplicarán las disposiciones siguientes:

1.º – Instalaciones ya autorizadas.

Las instalaciones que a la fecha de entrada en vigor de la presente Resolución estén formalmente autorizadas se regirán por la regulación que les resulte de aplicación en el momento de su autorización. Sin embargo, aquellas instalaciones que entren dentro de alguno de los supuestos previstos en el Grupo III, deberán en plazo de seis meses acreditar ante la Delegación Territorial competente el cumplimiento de las condiciones previstas en el referido Grupo de esta Instrucción.

Prórrogas del plazo de seis meses, previsto en este punto, podrán ser concedidas previa solicitud motivada y siempre que se acredite documentalmente que se ha iniciado el procedimiento de adecuación de las instalaciones.

Excepcionalmente, previa solicitud del interesado, las Delegaciones Territoriales competentes podrán, mediante Resolución motivada, excepcionar alguna o algunas de las condiciones técnicas y de seguridad exigibles a las instalaciones incluidas en el Grupo III, siempre que, en la solicitud se aporte la correspondiente Memoria Técnica en la que quede suficientemente acreditadas y especificadas todas aquellas medidas, requisitos y condiciones que garanticen la seguridad de la instalación. La Delegación Territorial competente, a la vista de la documentación presentada, podrá requerir todos aquellos datos, informes e inspecciones que considere necesarios para la autorización y podrá establecer el régimen de inspecciones periódicas a las que deberá someterse la misma.

2.º – Instalaciones no autorizadas pero en las que se ha iniciado el procedimiento para su autorización con fecha anterior a la entrada en vigor de esta Resolución.

A las Instalaciones previstas en este apartado, se las requerirá para que, en el plazo de seis meses contado desde la fecha de notificación del requerimiento, acrediten el cumplimiento de las disposiciones que según lo establecido en la presente Resolución les resulte de aplicación.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, produciendo, en todo caso, efectos jurídicos desde la fecha de su firma.

En Vitoria-Gasteiz a, 6 de abril de 1995.

La Directora de Administración de Industria, Energía y Minas,
MARÍA LUISA FUENTES ALFONSO.